ESTUDIOS INFORMES NAVARRA, S.L. (koord.). **Ingurugiro hezkuntzarako materialak. Lehen Hezkuntza. Ekonomi Jarduerak eta ingurugiroa.** // **Materiales de Educación Ambiental. Educación Primaria. Actividades Económicas y Medio Ambiente.** (Unitate Didaktikoen karpeta) Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila. Gasteiz, 1996.



Iker eta Noaga: bi bizimodu ezberdin

Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- HIZKUNTZA

HELBURUAK

- Kultura bakoitzaren bizimoduak errespetatzea eta balioestea, bereizkeria mota oro arbuiatuz.
- Lehen eta Hirugarren Munduko eguneroko bizimoduen artean dauden ezberdintasunak ohartzea.


MATERIALA

- ♦ Intermonen bideoa: **Noaga, la niña de Burkinafaso** (ez da ezinbestekoa jarduerara egin ahal izateko).


Garapena

Aldi berean aurkezten dira Ikerrek eta Noagak egun batean egiten dituzten gauzak. Jarduera hau 45na minutuko bi ekitalditan egitea aholkatzen dugu; lehenengoan, bi istorioak irakurri, iruzkindu eta erkatu egingo dira. Bideoa ere ikus dezakegu, fikzioa barik, Noagaren benetako bizimodua dela uler dezaten.

Bigarren ekitaldian, are lan sistematikoagoa egingo dugu. Lauzpabost laguneko taldeak antolatuta, Ikerren eta Noagaren familien bizimoduen arteko ezberdintasunak zehaztuko ditugu. Famili motari, etxeei, dibertsioei, desplazamenduei eta antzeko alderdiei begiratzeko esan ahal diegu. Halaber, interesgarria litzateke bi kulturen gauza positiboak eta negatiboak aurkitzeko esatea, bai eta, alderdi materialei dagokienez, zergatik dagoen horrelako alde handia planteatzea ere.



Hortxe daukazue Iker, egunari ekiteko prest.



Kaixo, Noaga naiz, 12 urte ditut eta Burkinafason bizi naiz. Gaur, ama eta biok goizeko lau eta erdietan altxatu gara.


Egun berezia da: lehenengoz joango naiz amarekin azokara. Oilasko batzuk hazi ditugu eta saltzera joango gara.



Gosari gozo honek indarra emango digu egunaren zati luze baterako.




Aitak lantegi batean egiten du lan, eta amak, laborategi batean. Gu ikastetxera joaten gara; ordu erdia ematen dugu haraino iristeko.




Nahiko astuna izaten da egunero bide hori egin behar izatea, baina are nekosoagoa da aitarentzat, berak hiria-
ren inguraldean dagoen industrialderaino joan behar du eta. Horregatik, guztiok etxetik kanpo bazkaltzen dugu. Zorionez, asteburuetan denbora luzeagoa izaten dugu elkarrekin egon eta gauzak egiteko.




Gosalorduan, etxeko guztiok elkartu gara: aita, ama, osaba, zazpi neba-ahizpak eta neu. Artatxikia da gure elikagairik garrantzitsuen. Artatxikia da; jan ahal izateko, xigortu, azala kendu eta eho egin behar dugu (zeregin hori —oso garrantzitsua— emakumeok egiten dugu), gero oratu eta egosi egin behar da, eta saltsa batekin jaten dugu. Amak baratze txiki batean hazten dituen barazki batzuk ere jaten ditugu, eta oilaskoak dauzkagun arren, jai handietan baino ez ohi ditugu jaten, nahiago izaten baitugu azokara eraman eta behar ditugun gauzekin trukatu.




Ama eta biok azokara goazen bitartean, familiako gainerako kideak ez dira nagitsu egoten: aita eta osaba sorora joan dira lanera. Herriko bizilagun guztiok harresi txikiak eraikitzen ari gara, euriteek gure lurzorua eraman eta luraren emankortasuna gal dadin eragozteko.




Bi neba nagusiak ur bila joan dira etxetik hainbat kilometrotara dagoen urtegi batera; ez dugu beste irtenbiderik, herrian ez daukagu—eta putzurik. Nire ahizpa Justine txikiak zaintzen geratu da.




Ufi, ez naiz ezertaz enteratu.



Asteburuan egingo dudana nerabilen buruan: kirol zapatila batzuk erosiko ditut, pelikula bat ikustera joango naiz... Beno, ikasi eta etxeko lanak ere egin beharko ditut.



Azkenik etxean! Arratsaldeko ordu honetan ahituta egoten gara: eskola, kontserbatorioa, futbitoa, saskibaloia... Gelditu barik ibiltzen gara! Orain, afaria prestatzen lagunduko dugu pixka batean, telebista ikusiko dugu, afaldu, apur batean ikasi eta ohera joango gara. Bihar ere eguna argituko du.




Azokan, herri askotako jendea ikusi dugu; amak jende asko ezagutzen du. Berak oilaskoak saldu bitartean, nik merkatuan zehar ibiltzeko aprobetxatu dut. Amak prezio onean saldu ditu oilaskoak, eta pozik dago; gozoki bat erosi dit postu batean... Bai gozoa!, neba-ahizpek jakingo balute...



Ama eta biok azokatik etxerako bidean goazela, zer egin nahi nukeen pentsatzen ari naiz: ikasi, egunero oilaskoa eta fruta jan, herrian putzu bat eduki... eta, arratsalde, nire jarduera gogokoena: beste emakume eta neskatoeekin kantatzea eta dantzatzeko egitea.



Herrira heldu garenerako, gaua zen jadanik. Amak eta biok erosi duguna erakutsi eta ikusi dugun guztia kontatu egin diegu. Guztiok elkarrekin afaldu ostean, txiki-nak zaintzen lagundu diot ahizpári. Haserre samar dago, bera ezin izan da-eta azokara joan; pasatuko zaio. Lotarako ordua da. Nekatuta nago, baina poz-pez; oso egun atsegina izan da gaurkoa.



Leo Verdura oihanean

Gai honekin zerikusia duten arloak

- NATUR ZIENTZIAK.
- GIZARTE ZIENTZIAK, GEOGRAFIA ETA HISTORIA.
- PLASTIKA.


HELBURUAK

- Lurraldearen erabilera identifikatzea.
- Erabilera horiek ekonomi, gizarte eta ingurumen ikuspuntutik dakartzaten ondorioak baloratzea.

MATERIALAK

- ◆ Leo Verduraren istorioa.
- ◆ Papera, boligrafoa, margoak, arkatzak eta abar.

Jardueraren garapena



Ikasleak lau zapabost lagunekotaldetan antolatutokoditugu eta Leoren komikiaren kopia bana emango diegu. Arbelean, segituko dugun gidoia idatziko diegu.

Hasteko, talde bakoitzean, istorioan ikusten duten egoeraz hitz egiteko eta ondoko galderei erantzuten saiatzeko esango diegu:

- Ikusten duzuen aurre-rapen eta garapenaren sinonimoa da?
- Helburua gizakiaren bizi-raupena da? Zalentzan jarri beharko ote genuke oraingo garapen ereduak?
- Idatzi istorio honen eta Euskal Herriko egoeraren artean sumatzen diren aldeak.

Horren ostean, denboran jauzi egin eta Leoren oihaneke bizimodua hamar urte geroago imajinatzeke esango diegu: nolakoa izango da? (Idatziz edo komiki taxua erabiliz adieraz dezakete).

Azkenik, bateratze-lana egingo dugu guztion artean: talde bakoitzaren iruzkinak entzungo ditugu eta planteatu dituzten etorkizun ezberdinak ezagutuko ditugu.



Dena 100 pezetan

Gai honekin zerikusia duten arloak

- NATUR ZIENTZIAK.
- GIZARTE ZIENTZIAK, GEOGRAFIA ETA HISTORIA.

HELBURUAK

- Gure kontsumismoak ingurumenean izan dezakeen eraginaz ohartzea.
- Lehen Munduko eta Hirugarren Munduko egoerari buruzko hausnarketa egitea.

MATERIALAK

- ◆ Atlasa eta munduko mapa.
- ◆ Papera eta boligrafoa.

Jarduera nola antolatu

Ikasgelako lana hasi aurretik, dena 100 pezetan saltzen duten denda horietako batera joango dira taldeka, eta 50 produkturen jatorria idatzi beharko dute.

Gero, datuok herrialdeka sailkatuko dituzte eta munduko mapan islatuko dituzte, atlas baten laguntzaz. Herrialde bakoitzeko produktu motak islatzeko, kodeak erabiliko dituzte.

Bateratze-lanean, lortutako datuak aztertu eta guztion artean aterako ditugu ondorioak:

- Zein herrialdetan fabrikatu dira produktu gehienak? Zergatik saltzen dute horrenbeste?
- Zergatik ekoizten dituzte horren merke? Zelako ondorioak ekarriko ditu horrenbeste eta horren merke ekoizteak?

Herrialde ekoizleen sailkapena

- ☐ 30 baino gehiago
- ☐ 20-30 bitartean
- ☐ 10-20 bitartean
- ☐ 0-10 bitartean

(Aipatu denda horietako batera joaterik ez badago, ikasleek etxeko produktuak aztertuz egin daiteke jarduera; emaitzak ez dira berdinak izaten, baina bestela eginda bezain baliagarriak dira ariketa honen helburua lortzeko).



Industri ekologia: enpresentzako jasangarritasuna



Gaurko industriak aldi bereko sorkuntza (cogeneración) proposatzen du ingurumen-arazoak gutxitzeko.

Industri ekologia eta bere helburua

Industri ekologia (IE) deritzanak gaurko industri sistemak berriro diseinatzeko eginkizuna du, ahal den heinean natur ekosistemen egitura eta funtzionamendua eredutzat hartuz eta biosferan integratzea ahalbidetzeko xedez.

Horren helburu nagusia mundu osoko, lurralde guztietako eta tokian tokiko garapen jasangarria sustatzea da; horretarako, hiru printzipio hauek bete behar dira:

- baliabideen erabilpen jasangarria.
- giza bizimoduaren eta ingurumenaren kalitatea.
- gizarte ekitatea.

HELBURUAK

- Inguruko enpresen azterketa.
- Industri sinbiosia lortzeko proposamenak (Interneten bilatuz).

Helburu generiko horiek toki mailako beste xede zehatzago batzuekin osatzen dira:

- tokian tokiko industri eta kontsumo prozesuek ingurumenari eragiten dioten inpaktua murriztea.
- eskualdeko industri oinarria sendotzea.
- tokian tokiko industrietako ekoizpen gastuak murriztea.
- enplegu netoa sortzea.
- toki-komunitateen bizi-kalitatea eta bizi-maila areagotzea.

IE aplikatzearen ondorioak

Natur ekosistemek, baliabideen urritasun hazkorra- ren aurrean, maximizatu egin zuten horien berrerabilpena; adibidez, landareek zurgatutako elikagaiak belarjaleek eta haragijaleek berrerabiltzen dituzte eta, ondoren, bakterioek, deskonposizioa- ren bidez, berreskuratu egiten dituzte elikagaiok eta berriro sartzen dituzte katearen hasieran.

Industri Ekologia murrizketaren, berrerabilpena- ren eta birziklapenaren bidez saiatzen da gizarte eta industri prozesuen eraginkortasuna maximizatzen.

Ikuspuntu horrek, enpresek eragiten duten ingurumen inpaktua urritu ez ezik, areagotu egiten du beraien lehiakortasuna eta, aldi berean, enplegu netoa ere sortzen du, izan ere bateragarriak diren enpresak bilarazten baititu elkarrengana, materiak eta energiak elkarri trukatu ahal izateko.

Sistema integrala eta bere osagaiak

Ekonomia, Enpresa Kudeaketa, Biologia, Ingenia-

ritza, Zuzenbide eta beste hainbat arlotako adituek ahaleginak batu eta elkarrekin garatu behar dituzte bai ekintza planak, bai ekintza planen ezarpena. Gainera, giza jarduerak eta ingurumen arazoak guztiz loturik daude; horregatik, eraldaketak sistema ikuspegiari, hau da, ikuspegi integralean oinarriturik egin behar dira.

Sistema elementuen eta ur, energia eta materialen fluxuen multzoa dela esan daiteke. Fluxu multzo hori, enpresetan ingurumen inpaktua eragiten duena, hiru motatakoa da:

- *Input*-ak (sisteman sartzen diren lehengaiak, ura eta energia).
- *Throughput*-ak (sistemaren barruan dabilten lehengaiak, hondakinak, ura eta energia).
- *Output*-ak (hondakinen eta emisioen bidez, sistematik kanpo geratzen diren materia, ura eta energia, berdin industriako hondakinak nahiz kontsumitzaileek baztertutako produktuak izan).

Helburua *throughputs*-en erabilpen eraginkorra maximizatzea da, *inputs*-ak eta *outputs*-ak murrizteko xedez.

Horrek etekin ekonomikoa dakarkie enpresei, lehengaiak merkeagoa delako erosten duenarentzat, eta saltzen duenarentzat, berriz, beste sarrera bat da (gainera, hondakinen tratamenduan eta teknologia berrietan aurreztu egiten da, eta arriskuak txikiagoak eta aseguru primak merkeagoak dira). Gastu batzuk (etengabeko prestakuntzari, azpiegitura komun garapenera eta abarri dagozkienak) konpartitu ahal izateak zerbitzu komun gastuak murriztea dakar.



Kutsadura gutxitzea ere helburu izan behar du industriak.



Ekoizpen prozesuaren atal bakoitzak ingurumenaren alde jokatzeko aukera desberdinak eskaintzen ditu.

Bestalde, balio erantsia dakarkie politikariei eta inguruko biztanleriari, izan ere eskualdean sortutako edota eskatutako hondakinekin bateragarriak diren prozesuak dituzten enpresa berriak inguruan kokatzeak enplegu netoa ekarriko du, sortzen diren beharrian berriak ase ahal izateko.

Orain, saia zaitzete ondorengo galderei erantzuten; horretarako, erabili hemen emandako informazioa edo bilatu argibide gehiago behean aipatzen dizkizuegun Interneteko helbideetan.

- Zer da industri ekologia?
- Zein dira industri sistema jasangarri baten eginkizunak?
- Zelako erlazioa dago diseinuaren eta industri ekologiaren artean?
- Zer da industri sinbiosia?
- Bilatu Danimarkako Kalundborgeko industri ekosistemari buruzko informazioa. Badago antzeko adibideren bat zuen inguruan?

Sareko helbideak

www.usuarios.intercom.es/rpastor/ecolind/ecolind.htm

www.uiah.fi/projects/metodi/237.htm

www.mideplan.go.cr/sinades/PUBLICACIONES/sector-productivo/index-3.htm

www.eciad.bc.ca/newcity/Pages/industrial-ecology.htm

Trukalarien azoka txikia

1989an Michael E. Thomas, 15 urteko estatubatuarra, ikaskide batek itota hil zuen basoan, Michaelen Nike Air Jordan zapatilengatik hil ere, amak ezin baitzizkion erosi. Urtebete geroago, Johnny Bates (16 urtekoa eta estatubatuarra hori ere) beste mutil batek buruan tiro eginda hil zuen, izan ere Johnnyrenak bezalako Nike zapatilak nahi zituen, baina ez zeuzkan erosteko behar zituen 125 dolarrak.



GOGORRA, EZTA? Baina bizitza bera bezain egiazkoa. Lehen Mundu *aurre-ratu* honetan bizi dugun zentzugabekeriaren (hilgarria, kasu honetan) bi adibide solte besterik ez dira.

Praka bakeroak nahi ditugu, baina Bonaventure izan behar dute; botak nahi ditugu, baina Kicker's ez badira, ez digute balio —marka soila erosotasunaren sinonimoa bailitzan—.

Lerro hauen bidez, publizitatearen botereari kontra egitea eskatu nahi dizuegu, moda iragankorren gainetik egon zaitezten, benetan zer behar duzuen eta zer ez askatasun handiagoz erabaki dezazuen. Horrela, gainera, ez duzue honelakorik entzun beharko: *...armairua mukuru beterik dauka, baina urdin argia modan dagoenez, ekin eta ekin dabil praka horiek eros diezazkiodan; eta 12.000 pezeta besterik ez dutela balio dio!* Eski haiek erosteko ere a zer nolako kasketaldia izan zuen..., eta begira, pare bat aldiz soilik erabilita, hortxe daude ganbaran botata, eta abar.

Egia da mundu materialista batean bizi garena; baina egia da, halaber, zeuen jarreraz publizitateak nahi duen bezain materialistak izatea saihestu ahal duzuen; beraren atzaparretatik ihes egin eta, batez ere, kontsumitzaile adimentsuak izan ahal zarete.

Trukerako azoka txikia

Zeuen ikastetxean trukerako azoka txiki bat antolatzea proposatzen dizuegu; oso dibertigarria izango da eta gauza asko eskuratu ahal izango dituzue sosik gastatu gabe. Trukea zer den badakizuelakoan nago. Antzinako jardunbidea da; dirurik ez zegoenean, jendeak produktuak eskaintzen zituen beste batzuk eskuratzeko. Herrialde batzuetan, gerraren ostean edo 29ko Depresio Handiaren garaian garatu zen jardunbide hori. (Kultura batzuetan oraindik ere erabiltzen dute).

Hemen, horrelako bat antolatzeko

aholku batzuk emango dizkizuegu. Gero, zeuen arauetz eta egokien deritzauden moduan antolatu ahal izango duzue.

Hasteko, ez bota ezer zakarrontzira (ziurrenik, zuen etxeetan bota egiten dira jadanik balio ez duten arropak edo gauzak). Gorde dena eta, hiru hilerik behin, antolatu azoka txikia. Horretarako, baimena eskatu beharko duzue institutuan, tutorearekin hitz egin eta gela handi bat eskatu —gimnasioa, adibidez—.

Ahalik eta gauza gehien biltzeko, Bigarren Hezkuntzako beste maila batzuetako kideekin elkartu ahal zarete. Sailkatu bildu dituzuen gauzak: liburuak (aldizkariak, komikiak, testuliburuak eta abar), kirol materiala (linternak, baloiak, futbol talderen bateko jantzia...), arropa, etxetresna elektriko-

ak, osagarriak... Azoka txikira eramaten den gauza bakoitzaren truke bonoak eman ditzakezue (agian horixe izango da hoberen planifikatu beharreko atala, banaketa ahalik eta berdintasun handienaz egiteko). Norbaitek ezer eramaterik izan ez badu, *pagotxen saila* antola dezakezue, mundu guztiak zer edo zer eskuratzeko izan dezan. Lardaskarik sor ez dadin, zereginak —gauzak sailkatu, bonoak eman, etab.— zuen artean banatzea komeni da.

Beste iradokizun bat: azoka txikiaren eguna baino lehen (edota edozerengatik ezin egin baliteke), atal berezi bat ipin dezakezue ikastetxeko iragarki taulan, zer eskaintzen duzuen eta zer eskuratu nahi duzuen iragartzeko (*Nire testuliburuak eskaintzen ditut komikien truke...*).



Sestaoko Kueto ikastetxekoek esperientzia handia azoka txikiak antolatzeko.

Badakizue gaur egun, gauzak ez ezik, zerbitzuak ere trukatzeko direla? Sarean, gai horri buruzko gune batzuk aurkituko dituzue:

- www.geocities.com/archivomat2/trueque/Clarín_Zona_18_8_4.htm
- www.comunidad-virtual.org/al-andalus-mail/990228/aso.htm

Telones de fondo

UNA DE LAS PARADOJAS del mundo en que vivimos es que una acción idéntica puede tener consecuencias ambientales muy diferentes dependiendo del contexto en que se desarrolle. El gesto cotidiano de abrir un grifo tendrá influencias distintas si somos abastecidos por una empresa que capta una porción modesta del caudal de un río que si nos abastece otra que lo esquilma sin limitaciones. La inocente lechuga que acabamos de traer del mercado puede proceder de una huerta familiar, pero también de una agroindustria que explota de forma miserable a emigrantes sin papeles, lo que otorga significados distintos a nuestra compra.

Intentar orientarnos sobre las opciones más justas y respetuosas con el medio ambiente se convierte así en una tarea casi imposible; deberíamos contar con información detallada sobre cientos de productos y servicios. Pero, además, nuestros márgenes de elección, no dejan de ser limitados. Entre nuestras opciones como consumidores no figura elegir las características del sistema de abastecimiento de agua o energía o del transporte público que presta servicio en nuestra comarca.

A medida que la población se concentra en las ciudades y la globalización económica progresa, contamos con una red más compleja de intermediarios que condicionan nuestras relaciones con la naturaleza y las hacen más opacas. Avanzar hacia comportamientos más ecológicos y solidarios se hace muy difícil, ya que si el sentido de nuestras acciones se nos escapa, es imposible decidir con conocimiento de causa.

En estas circunstancias, cualquier intento de desarrollar una educación útil para hacer frente a la crisis ambiental ha de atender de forma especial a esos contextos que dan un significado más preciso a nuestros comportamientos. Un enfoque ya clásico en la educación ambiental urbana ha sido el de *seguir pistas*, partiendo de la experiencia cotidiana, para reconstruir con los alumnos los flujos de materia o energía que se establecen en nuestras ciudades. ¿De dónde vienen nuestros alimentos, nuestros productos de consumo más representativos? ¿Qué ocurre con ellos terminado su ciclo de vida? Los alumnos tienen ocasión de descubrir que un atractivo parquet de madera puede estar relacionado con la destrucción de bosques tropicales o que la energía eléctrica que calienta el aula, aparentemente limpia, quizá se ha generado en una contaminante central térmica que está contribuyendo al efecto invernadero.

A pesar del evidente valor de estos enfoques, cuando revisamos los programas y materiales educativos que se han producido inspirados en estos planteamientos, constatamos que las conclusiones del ejercicio investigador afectan casi siempre a las opciones individuales (desembocan en criterios para una compra más ecológica, consejos sobre qué debemos hacer con distintos tipos de residuos...), pero pocas



Francisco Heras

Coordinador del Área de Educación del **CENEAM** (Centro Nacional de Educación Ambiental)
Miembro de la Comisión de Educación y Comunicación de la **UICN** (Unión Internacional para la Conservación de la Naturaleza)

veces contemplan las opciones colectivas; la importancia de los contextos en que desarrollamos nuestras acciones se reconoce, pero estos no se valoran, no se plantea su transformación.

Las razones que pueden explicar este hecho son diversas: a menudo, los contextos se perciben como elementos inmutables, telones de fondo que escapan a la influencia de los ciudadanos. Otro factor que no debe olvidarse es que muchos programas y materiales educativos están promovidos precisamente por organizaciones que dan forma a esos contextos: organismos públicos responsables de la gestión ambiental, empresas de abastecimiento de aguas, empresas de gestión de residuos. Es difícil que los propios creadores de esos condicionantes colectivos pongan en entredicho, de forma abierta, su papel en la problemática ambiental.

La reciente popularización de las ecoauditorías escolares está propiciando, sin embargo, un interesante cambio cualitativo en este panorama: los contextos, los más próximos y cotidianos, no sólo son reconocidos, también son juzgados; se buscan las fórmulas para transformarlos y, finalmente, se interviene para llevar a la práctica proyectos concretos de mejora. Los alumnos analizan el uso del agua y la energía en el centro educativo; cómo se organiza el espacio, qué se consume, qué residuos se generan y qué se hace con ellos. Y buscan alternativas viables para mejorar, con la sana intención de hacerlas realidad. En el proceso interactúan —no podría ser de otra manera— con los otros componentes de la comunidad escolar: profesores, personal no docente, padres, administración local...

Hay un cambio de planteamiento importante: ya no sólo se incide en el valor de las opciones individuales para lograr cambios, sino también —y muy especialmente— en el de las colectivas. Y, además, se descubre que hay compañeros de viaje con los que debemos contar cuando deseamos transformar cosas que afectan a muchos.

En definitiva, las ecoauditorías educativas pueden mostrar a los que participan en ellas que existen procedimientos para avanzar hacia soluciones más respetuosas con el medio ambiente en el centro de estudios. Pero, por extensión, también nos proponen un camino que podemos emprender con nuestros vecinos de bloque, compañeros de trabajo o, simplemente, con otros ciudadanos sensibles y preocupados. Porque, si uno se fija, descubrirá un montón de *telones de fondo* que cambiar para avanzar hacia un mundo en el que la conservación ambiental sea compatible con una calidad de vida mínima para todos.

2001: Boluntarioen Nazioarteko Urtea

NAZIO BATUEN Biltzar Nagusiak Boluntarioen Nazioarteko Urtea (BNU) izendatu du 2001a. Erabaki horren helburuak boluntarioen lana onestea eta sustatzea dira, bai eta mundu osoko boluntarioen arteko esperientzien elkartrukea erraztea ere.

1985ean, UNOren Biltzar Nagusiak abenduaren 5a aukeratu zuen Boluntarioen Nazioarteko Eguna (BNE) izateko; harrezkero, Nazio Batuen Boluntarioen Programak boluntarioek mundu

osoan garatutako jarduera eta ekimen anitz bildu ditu bere baitan. BNUari buruzko web gunean ikus dezakezue esperientzia horien zerrenda, beste talde, elkarte eta erakunde batzuek lankidetzan eta boluntario lanean segitzeko ideiak eta erreferentziak argitaratzeko helburua duena. Hiru atal ditu: **Lagundu jendeari, Boluntario lanaren sustapena eta Ospa dezagun!**. Horietako lehenengoan, giza laguntzako eta elkartasuneko ekintzak jaso dira (gai-xorik dauden haurrei egindako bisi-taldia, ama ezkongabe eta pentsiodunentzako laguntza, nekazari komunitateentzako laguntza...), giza-bidezko eta garapena lortzeko ekintzak (errepide eta bideen eraikuntza, eskola eta ospitaleen garbiketa...), ingurumenaren aldeko jarduerak (hondartza, parke eta natur erreserben saneamendua; zuhaitz landaketa eta oihaneztatze-kanpainak...), hezkuntza arloko ekintzak (irakurtzen irakastea; ingurumenari edo HIESari buruzko kontzientzia zabaltzeko kanpainak antolatzea...). Bigarren atalaren helburua boluntario taldeak osatzea eta hezte da batez ere, bai eta esperientziadun pertsonen arteko ezagupenak trukatzeko ere. Azkenik, hirugarren atalak kultur gertaeren eta *dibertsio* programen berri ematen du.

BNUari buruzko web gunean (www.iyv2001.org/iyv_span/global/global.htm), munduko hainbat tokitan egindako edo antolatutako ekitaldiei buruzko informazio zehatza, berriak, parte hartzeko datuak, BNUari buruzko beste web gune batzuk eta beste gauza anitz aurkitu ahal dituzue. Herrialde askotan garatutako proiektuak ezagutuko dituzue, bai eta, elkartasuna abiapuntu hartuta, planeta bidezkoagoa lortzeko nola lan egin daitekeen ere.



Amerikako kultura indigenetan zehar

Más allá de los mares Memorias de un superviviente del siglo XX

Gunter Holzmann
Icaria, Madril, 2000.

Holzmannek, judu alemaniarra, 1935ean egin zuen ihes Alemaniatik. Berrogei urte baino gehiagotan hainbat lan egin ditu kontinente amerikarrean (gaur egun Bolivian bizi da). Denboraldi luze horretan egin duen bizimodu abenturazaleari esker ondo ezagutu ditu kultura indigenak. Bere oroitzapenetan, Andeen gailurretan edo Amazoniako oihanetan zehar berekin bidaiatzeko gonbita egiten digu, bere abenturen, bere begiradaren eta, baita ere, askotan bidegabekia eta hipokrita den gizarte honen kontrako kritika bortitzen lekuko izan gaitezten.



Puntu berdea

AMAIA AGIRRE ARRASTOA Villabonan 1977ko abuztuaren 27an jaioa. Euskal Filologian lizentziatua, eta egun HITZETIK HORTZERA telebista saioko langilea. Bertsotan 15 urterekin hasi zen, Jokin Sorozabal Andoaingo bertsolariarekin. Bat-bateko bertsolaritzan izandako lorpenik handienak hauek dira: 1998an XENPELAR bertsolari gazteen txapelketan txapeldun, eta 1999an Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketan bigarrena.

*Kontsumoaren menpeko
bizi maila hobetzeko
ustea ustel antzeko.
Maiz entzuten da: "gauza gehiago
izanez gero hobeto!"
baina mila bitarteko
ez dira ezinbesteko
zoriontsu bizitzeko.*

*Garapen jasangarria,
baina jasangaiz jarria
atzera pauso larria.
Agor ez dadin gizarte honen
irtenbideen iturria
trukatzeko oinarria,
ta laguntza lokarria:
"Norberak bere neurria".*

Doinua: "Goizian argia hastian".

SARETIK BUELTAKA

Gure aztarna ekologikoa:
<http://suse00.su.ehu.es/euskonews/0084zbbk/gaia8401es.html>

Ingurumenean, guztiok uzten dugu geure *aztarna ekologikoa*, hau da, guztiok eragiten diogu inpaktua geure inguruari, natur baliabideen erabilera dela-eta. *Aztarna* horixe da gure natur kontsumoa ebaluatzeko eta kalkulatzeko erabiltzen den tresna. 52 herrialderen *aztarna ekologikoari* buruz egindako azterlan batek erakutsi duenez, horietarik 10 herrialde baino ez dira euren gaitasun ekologikoaren barruan bizi. Hortik ondoriozta daitekeenez, herrialde industrializatuak garapen ekonomikorako egungo ereduak ez da jasangarria.

HONEK, gobernuz kanpoko erakunde solidarioa:
www.honek.org



HONEK (Herri Oinperatuekin Nazioarteko Elkartasunerako Kideak) gobernuz kanpoko erakundearen euskarazko eta gaztelaniazko orrialdea. Erakunde horrek Gipuzkoan eta Nafarroan ditu egoitzak eta hainbat elkartasun proiektu garatu ditu garabidean dauden zenbait herrialdetan, euskal lankide boluntarioei esker. Orain arte egindako lanetan, bereziki azpimarragarriak dira Errepublikak Arabiar Saharak Demokratikoko errefuxiatuen kanpamenduen arteko komunikazio linearen sorrera edo Nikaraguan egindako jarduerak ugariak (haurrentzako jantokiak, gerrako elbarrientzako eskola-tailerrak...).

SODEPAZ, Garapenaren aldeko GKE independentea:
www.nodo50.org/sodepaz/nafarroa/
Garapenaren aldeko borroka aniztasunarekiko eta kultur balioekiko begirune hertsian oinarrituriko eraikuntza gisa ulertzen dugu diote egoitza lruñean duen SODEPAZ GKEko kideek euskaraz eta gaztelaniaz argitaratutako euren web gunean.

Elkartekak

LAU TALDEK osatzen dute Herrigintza, bertoko GKEen plataforma txikia: Bateginez (Durango), Gernikatik Mundura (Gernika), Kainabera (Elorrio) eta Urko-Punta (Ermua). Herri-esparruan lan egiten duten talde horiek elkartasunaren eremuan dihardute eta zabalik dauzkate euren ateak zuen parte-hartzea jasotzeko prest, guztion artean boluntarioen proiektuak gauzatu ahal izateko. Orokorrean, GKE handiak gure geografiatik oso urrun dauden lekuez arduratzen dira; baina, sarritan, geure auzoetan bertan, hondamendi ikaragarriak edo gerra bortitzak jasan dituzten herrialdeetan bezain premiazkoa da boluntario eta elkarten laguntza.

Hona hemen lau talde horien helbide elektronikoak eta telefonoak:

Bateginez

☎ 946 813 275

posta-e: marisarobu@euskalnet.net

Gernikatik Mundura

☎ 946 255 255

posta-e: gernimundu@euskalnet.net

Kainabera

☎ 946 821 344

posta-e: aguirre@gaiker.es

Urko-Punta

☎ 943 175 033

posta-e: iarzuagag@nexo.es



Lurra, gure planeta


Xebek kooperaziora hurbiltzen gaitu

Eusko Jaurlaritza eta Unesco Etxea.

Xebe, unibertsitateko ikasle gaztea, herrien eta kulturen arteko lankidetzaz mintzo zaigu, lankidetzak zer esan nahi duen, nola gauza daitekeen eta abar azalduz. Koaderno honetan, beste herrialde batzuetan izandako esperientziak eta bere etxetik eta bere auzotik urrun ikasitako gauzak kontatzen dizkigu.

Egunero eskolara joatea, eskuak nahi dugun guztietan garbitzea eta guretzat hain errazak eta arruntak diren beste hainbat gauza ez dira horren errazak munduko leku askotan.

Xebek modu erraz eta hurbil batez definitzen du *garapen jasangarri* kontzeptuaren —modan dagoen horren— esanahia. Eta mundu osoko pertsonen arteko ezberdintasunak murrizten laguntzeko modua ere azaltzen digu: GKEak, kanpainak, Bidezko Merkataritza, etab.



¿Qué podemos hacer desde la familia por el medio ambiente?

El gran reto para salvar el planeta es hacer que nuestros hábitos cotidianos sean respetuosos con el ecosistema

LA MEJORA del medio ambiente no es una labor que compete únicamente a la clase política que se reúne periódicamente para discutir, aprobar o dictar decisiones a nivel internacional; con cada gesto o actitud nuestra, por mínima que nos parezca, podemos participar activamente en superar la crisis ambiental de nuestro planeta.

La escuela es un núcleo importantísimo para fomentar valores y acciones en favor de la conservación de la naturaleza, pero otro núcleo tan importante como el anterior es la familia. Los padres y madres tienen en sus manos la posibilidad de inculcar a sus hijos/as una educación en la que el respeto por el medio ambien-

te sea un punto fundamental. Quizá penséis que se trata de una labor ardua y compleja, o puede que a menudo no sepáis cómo tratar este tema. En este apartado continuamos ofreciendo sugerencias sencillas y factibles. En esta ocasión os invitamos a que conozcáis el libro **Tu casa, tu planeta**, en el que encontraréis pautas, actitudes y experimentos que favorecerán la relación de vuestra familia con el medio.

Entre los apartados de este libro tenemos: *buenos hábitos* (para hacer más ecológica la vida), *ideas para la vida familiar*, *aprender haciendo* (experimentos sobre cómo hacer, por ejemplo, papel reciclado, jabón, un vivero de árboles, etc.), *¿a qué*



MARTÍNEZ HUERTA, J. **Tu casa, tu planeta**. Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente. Gobierno Vasco. Vitoria-Gasteiz, 2000.

jugamos? (propuestas divertidas y originales para estar más tiempo con la familia y al mismo tiempo acercarnos a la naturaleza), *para no perderse* (un breve diccionario de términos medioambientales para que os pongáis al día)...

Cómo hacer una pequeña depuradora

Se trata de un experimento a través del cual comprenderéis el proceso de depurado.

Cosas que necesitamos:

- una rejilla o un colador,
- una cucharilla,
- tres botes o recipientes de plástico,
- grava y gravilla,
- arena limpia,
- dos palitos y
- alumbre (opcional).

Antes de poneros manos a la obra, es conveniente que preparéis agua sucia (añadiendo restos de comida, tierra, etc.) y que tengáis dispuesto el filtro: agujeread la base del recipiente o botella de plástico y meted dentro una capa de grava, encima otra de gravilla y, por último, la arena.

Cómo se hace

1. Vertemos el agua sucia en el colador y la recogemos en el bote 1 para separar los sólidos más gruesos.
2. Añadimos una cucharadita de alumbre en el agua sucia, la removemos y la dejamos reposar. El alumbre favorecerá la sedimentación de las pequeñas partículas del agua. (Este paso es opcional).

3. Ayudándonos de los dos palitos, colocamos el filtro que hemos preparado previamente sobre el recipiente 2 (ver gráfico).
4. Vertemos el agua sobre el filtro, dejando los fangos en el recipiente 1.
5. Por último, observaremos las características del agua depurada, pero no la beberemos.



Unitate didaktikoak

CEIDA zentroetan eskura ditzakezuen materialak proposatzen dizkizuegu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lankidetza eta garapena lantzeko:

Educación para el desarrollo. Concreciones Curriculares en el Área de Ciencias Sociales de la E.S.O

Hegoa. Gasteiz, 1992.

Unitatea jarrerazko, prozedurazko eta kontzeptuzko edukien inguruan antolatuta da. Edukion lokarri gisa, lanerako oso adibide praktikoak erabiltzen ditu, hala nola *Islama*, *Emakumeak eta Gizartea* edo *Hego Afrika*, eta horietan oinarriturik, ikasleentzako material bat eta irakasleentzako beste bat aurkezten dira, gida, atlas, prentsako berri eta abarren koloretako fotokopiak eta guzti. Arabiar mundura hurbiltzeko adibideetako bat Turkiako bidaiari buruzko jarduera duzue, taldeka antolatu beharrekoa: ibilbidea, garraioa, ekipajea eta abar.



Cuaderno sobre el Medio Ambiente y el Desarrollo Humano

Unicef. 1997.

Herrialdeen artean baliabideen lorpenean, hondakinetan, ur kontsumoan, aniztasun biologikoan, energi baliabideetan eta antzeko gaitan dauden ezberdintasunak aztertzen ditu. Prentsako hainbat artikulua interesgarri erabiltzen ditu iturritzat.



Giza Eskubideen Hezkuntzari buruzko baliabideak. Bigarren Hezkuntza: DBH eta Batxilergoak

Arartekoa. Gasteiz, 2000.

Material honek fitxa taxua du; bertan, munduko ezberdintasunak nola landu (irakasgaiaren arabera) azaltzen da. Adibidez, Geografiaren ikuspegitik, Petersen maparen gaineko lan bat eta herrialde batzuetako arazo zehatzen azterketa aurkezten dira.



Bakegintzan

Unesco Etxea. Bilbo, 1997

Gaika antolaturik eta fitxa taxuz lantzen ditu Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanak, emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak, komunikazioa eta beste hainbat gai. Eta gatazkak konpontzeko baliagarriak izan daitezkeen rol jolasak ere eskaintzen ditu.

JOKOA



Mundutxo

Cómo hacer que la cruda realidad se convierta en un rico guiso

Gasteizko %0'7 eta gehiago Batzordea. Cesena (Italia), 1999.

Joko hau ere Bigarren Hezkuntzan erabiltzekoa da, bereziki DBHko bigarren zikloan eta Prestakuntza Zikloetan.


Munduko mapa irudikaturik duen taula bat dauka. Bertan ageri diren laukitxoetan zehar mugitu beharko dute jokalariek, iristen diren herrialdeari buruzko galderari erantzunez. Horrez gain, jolasarekin batera, irakasleari oso jarduera originalak garatzen laguntzeko hainbat proposamen didaktiko bildu dira koaderno batean.



IRAKURGAIK**Geografía del Subdesarrollo****Yves Lacoste**

Ariel Geografía. Bartzelona, 1982.

Sorbonako irakasle ospetsuaren monografía honetan sakonki aztertzen dira Iparraldeko eta Hegoaldeko herrialdeen arteko desoreken zergatiak; horrez gain, harreman sistema konplexuarekin zeri-kusia duten oinarritzko kontzeptu batzuk lantzen ditu, hala nola hazkunde demografi-koa, jaiotza-tasa, heriotza-tasa eta abar.



Zaharkitu samartuta dagoen arren, *Geografía del Subdesarrollo* izenburuko lan horrek herrialdeen arteko menpetasun harremanak aztertzen ditu eta desoreken mapa ere aurkezten du, kolonizazio, bloke ideologikoen arteko tentsio politiko, kanporatze, industrializazio prozesu eta antzeko kontzeptuetan oinarrituz.

Hitzaurrean, beste geografo bikain batek, Pierre Georgek, dioskunez, faktore horiek guztiak ezagutzea ezinbestekoa da, *garapenerako galgak direlako*. Ezinbestekoa da horiek ezagutzea, *Hirugarren Munduko Herrialdeen egoerak eta arazoak erotik ulertu ahal izateko, izan ere horiek Lurraren eremuaren bi heren eta munduko biztanleriaren hiru laurden ukitzen baitituzte*.

Ecología Política aldizkaria

19. zk. 2000ko bigarren sei hilekoa

Aldizkari osoak jasangarritasunaren inguruan dihardu, *La resistencia. Un camino hacia la sustentabilidad* izenburupean bildutako hainbat artikulutan oinarriturik.

Artikuluotan, Kanpo Zorra bezalako arazo berri samarrak ez ezik, ingurumen arazo zaharrak ere aztertzen dira, esaterako Iparraldeko eta Hegoaldeko baso-sartzeak.

Bestalde, mundu osoko ingurumen-gatazken adibideak eskaintzen dira, Brasilgo Lurrik Gabekoen Mugimenduaren (MST-aren) borroka, Sri Lankako esperientzia eta abar, kasu.

**Erakusketa Ibiltariak**

Horrelako gaiei buruzko hainbat erakusketa ibiltari daude, institutueta eraman daitezkeenak.

**Biztanleria indigenari buruzko erakusketa ibiltaria****Hirugarren Mundua eta Bakeak planteatua**

Erakusketa tamaina handiko panel batzuek osatzen dute eta munduko hainbat lekutako herri indigenen errealitatearen berri ematen du. Argibide gehiago nahi badituzue, jo erakunde honetara:

Sombrerería kalea, 3-4. 48005 BILBO ● ☎ 944 162 325

www.sarenet.es/hmb**Xebe eta nazioarteko lankidetzak**

Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko ezberdintasunei eta Lankidetzari buruzko Erakusketa Didaktikoa

Unesco Etxea

Berez, ikastetxeetara eraman ahal izateko taxututako bi erakusketa ibiltari dira. Bakoitza DBHko ziklo batekoei zuzentzen zaie.

Lankidetzak zentzu zabalean lantzen duen programa didaktiko baten atal dira biak. Haietako bakoitza hainbat panelez osaturikoa da eta, gidaren laguntzaz, herrialdeen arteko desberdintasunen zergatiak, bizimodu ezberdinak eta abar aztertzen dira. Hori guztia lankidetzak proiektuetan parte hartu duten zenbaitek emandako hitzaldi batez osotzen da. Interesik badutuzue, hementxe lor dezakezue informazio gehiago:



Unesco Etxea. Hezkuntza Arloa ● Urkijo zumarkalea, 60, ppal. esk. 48011 BILBO

☎ 944 276 432 ● Posta-e: unescovp@eurosor.org




Baliabideak Interneten

Interneten bidez ere informazio ugari eta baliabide didaktiko anitz eskuratu ahal dituzue. Ondoko helbideak gomendatzen dizkizuegu:



Nazio Batuen Cyberschoolbus-a:

www.un.org/Pubs/CyberSchoolBus/spanish/index.htm



Munduko gida. Mundua Hegoaldetik ikusita:

www.guiadelmundo.org.uy



Educa sarean:

www.fuhem.es/CIP/EDUCA



Bidezko merkataritza: beste lankidetzatza bide bat

Hona hemen, aipatutakoez gain, beste informazio zentro batzuk:

Bakeaz

Zuberoa etorbidea, 43-etxabea
48012 BILBO
☎ 944 213 719

Euskadiko GKEen Koordinadora

Casa Rogelia de Álvaro.
Panama k., z/g.
01002 GASTEIZ
☎ 945 280 745
coordar@congda.jazztel.es

Bailen, 13 - 2., 1. dptu.
48003 BILBO
☎ 944 150 300
coordongd@arrakis.es

Carlos I hiribidea, 15-17
solairuartea
20011 DONOSTIA
☎ 943 463 526
coordar@euskalnet.es

Hegoa

Ekonomi Zientzietako
Fakultatea
Agirre Lehendakaria, 83.

48015 BILBO
☎ 944 473 512
hegoa@bs.ehu.es
www.ehu.es/hegoa

Manuel Iradier, 6-etxabea
01005 GASTEIZ
☎ 945 131 587
hegoavitoria@serenet.es

Manos Unidas

Foruak, 6.
01004 GASTEIZ
☎ 945 231 179

Espainiako Bankua, 3, 2.
esk.
48005 BILBO
☎ 944 160 368

Zabaleta, 5-3
20002 DONOSTIA.
☎ 943 285 000

Mugarik Gabe

Zumarraga, 7-etxabea
48006 BILBO
☎ 944 154 307
mugarik@mail.com

BIDEZKO MERKATARITZAKO

denda solidario bat bisitatzea aholkatzen dizuegu.

Elkartasun taldeekin loturiko denda horiek benetako prezioan saltzen dituzte Hegoaldeko herrialdeetatik ekarritako produktuak, komunitate ekoinleetan bidezko soldatak eskaintzeko aukera ematen diena. Baten batek pentsa dezake prezioek, garestiagoak direlako, artekariak dakarkietela etekina, baina ez da hala. Hain zuzen ere, artekaririk ez izateak eta garraioa eta inportazioa zuzenean komunitateek eurek —GKEen laguntzaz— eskala txikian egiteak garestitzen du produktua

Euskal udalerrri askotan, Gabon garaian ireki ohi dira horrelako dendak; beste batzuetan, aldiz, urte osoan egoten dira zabalik, boluntarioen lanari esker. Horrelaxe egiten du Bilboko Intermón Dendak, horrez gain, ikasle-entzako hitzaldiak, dohainik, ematen dituena (aurretik hitzartu behar da).

Urkijo zumarkalea, 11
48008 BILBO
☎ 944 160 000



Hiria eta bere ingurunea

La ciudad y su entorno

CEIDAk argitaratutako kartel honetan, hiria hornitzen duten materialen sorburua eta bera inguratzen duten azpiegiturak ikus daiteke. Kartel honek "Bizitzeko hiria" izenburupean argitaratu zenarekin batera, izenburu bereko gida didaktikoan hiriari buruz bildutako alderdi guztiak lantzeko aukera ematen du.

Este cartel editado por el CEIDA, muestra el origen de los materiales que abastecen la ciudad, así como las infraestructuras que la rodean. Junto con el ya editado "La ciudad habitable", permite trabajar todos los aspectos de la ciudad, incluidos en la guía didáctica del mismo nombre.

Garapen jasangarrirako egingo diren ingurugiro hezkuntza-jardueren katalogoa. Vitoria-Gasteiz eta Araba

Catálogo de actividades de educación ambiental para el desarrollo sostenible en Vitoria-Gasteiz y Araba

Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaierako Ikastegiak argitaratu du Agenda 21en ezarpenarekin eta garapen jasangarriarekin loturiko jardueren gida hori (GKEen eta elkarteen proposamenak ere azaltzen dira bertan).

El Centro de Estudios Ambientales del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz ha editado esta guía de actividades relacionadas con la aplicación de la Agenda 21 y el desarrollo sostenible (recoge propuestas de ONGs y asociaciones).



IHITZAren ale guztiak sarean: www.euskadi.net/ihitza Todos los números de IHITZA en la web

Gai hauek prestatzen gabiltza:

- 7 zk.: Ura: bizitzaren oinarrietako bat arriskuan
- 8 zk.: Garraioa. Beharra edo luxua?
- 9. zk.: Lurzorua

Zuen ekarpen eta iradokizunen zain gaude.

Números en preparación

- Nº 7: El agua: soporte de vida en peligro
- Nº 8: El transporte. ¿Necesidad o lujo?
- Nº 9: El suelo

Esperamos vuestras aportaciones y sugerencias.

CEIDA ingurugiro heziketa zure eskura

BILBAO
Ondarroa, 2
48004 Bilbao
• 944 11 49 99
• ceida-bilbao@ej-gv.es

URDAIBAI
Udetxea Jauregia
48300 Gernika-Lumo
• 946 25 71 25
• urdaibai@ej-gv.es

DONOSTIA
Basotxiki, 5
20015 Donostia
• 943 32 18 59
• ceida-donosti@ej-gv.es

LEGAZPI
Brinkola, z/g
20220 Legazpi
• 943 73 16 97
• ceida-legazpi@ej-gv.es

VITORIA-GASTEIZ
Baiona, 56-58
01010 Vitoria-Gasteiz
• 945 17 90 30
• ceida-vitoria@ej-gv.es

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU
ETA INGURUMEN SAILA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN
DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN